

UR-ZOZOA

errekan gora, errekan behera



Iñaki Sanz-Azkue



Bailara malkarrak, estuak, ilunak.

Ur-jauziak, hezetasuna, harkaitzak, landaredia, basoak, ura eta zarata.

Errekako uraren zarata burrunbatsua, etengabea, amaigabea.

Etxolaberriko minetarako bidean, isiltasuna urak puskatzen du.

Etxolaberriko minetarako bidean meatzariak marraztu zuten bidea urak eteten du.

Itxi ziren minak, gelditu zen langileen joan-etorria.

*O*rain, haltzadi ederren azpian, pertsona haiek pausuz pausu, urtez urte irekitako

bidezidorra ezkutatuz doa. Goroldioak, iñistorrak... landarediak,

aurretik galdutako lekua, bere lekua, berreskuratu egin du.

Orain, meatzerik gabe, ur-zozoa da ibilbide hori egiten duen bakarra.

*Ur-zozoa da, egunero, errekan gora, errekan behera dabilen bakarra... **ala ez ?***

Nolakoa da



Cinclus cinclus (linnaeus, 1758)

Euskaraz: Ur-zozoa

Izaera: Sedentarioa

Babesa: EAE eta Nafarroako katalogoetan interes bereziko gisa azaltzen da.



Irudia: www.euskalnatura.net



Argazkia: Nicole Bouglouan



Argazkia: Thomas Kraft



Argazkia: Yvon Toupin

Airean...

Etxolaberriko minak ziren Kartola errekan ez ezik, Epele auzotik gorako gainontzeko erreka eta erreka inguruetan ere topa daiteke. Inguru haietan ibili ohi denak nahiko erraz ikusiko du hegana bere hegaldi azkar eta zuzenarekin.

... Ur gainean...

Ubidetik asko aldendu gabe, erreka urretatik oso gertu, ziztu bizian ibili ohi da gora eta behera, erreka zaintzen egongo bailitzan.

... Zein urpean!

Baina ur-zozoa, hegalaria ona ez ezik, urpekari eta igerilari ona ere bada. Izan ere, bizirik jarraitu nahi badu, ez zaio urpean ondo igeri egitea beste erremediorik geratzen, erreka urre azpiko harri borobilduen behealdean dauden ornogabe urtarrek osatzen baitute bere elikagaia. Hau dela eta, hegazti bitxi honek, uretan barrena sartu eta hegoak erabiliz korrontearen aurka igeri egiten du harripean aurkitzen dituen ornogabeak harrapatu eta jateko. Ikusteko zailagoa den arren, urpean, hondoan ibiltzeko abilezia ere baduela jakina da.



Ur-zozoa ondo kontserbaturiko erreketan baino ez da bizi

Argazkia: Iñaki Sanz-Azkue



Argazkia: Wikimedia_Commons_Andrew

UR-ZOZOA: ANIMALIA BIOINDIKATZAILEA

Bere bazka osatzen duten ur azpiko zomorro txikiak, ordea, erreken kalitatearen arabera asko alda daitezke. Uretako ornogabeak, ibai eta erreken kalitatea neurtzeko erabili ohi dira: kalitate oneko erreketan ornogabe aniztasuna handiagoa den bitartean, kalitate baxukoetan, ornogabe aniztasuna asko jaitsi ohi da. Hau dela eta, ur-zozoa ondo kontserbaturiko erreketan baino ez da bizi, ornogabe aniztasun eta dentsitate altuak dituzten erreketan. Bizi ahal izateko janari nahikoa duen erreketan, alegia.

Ezaugarri honek, ur-zozoa erreferentziako hegaltia bihurtu du: ur-zozoa espezie bioindikatzailerak da. Dagoen lekuan, erreken kalitatea nahiko ona dela esan daiteke. Hau dela eta, erreken kontserbaziorako eta babeserako kudeaketa lanetan, ur-zozoa erreferentzia ona izan ohi da. Era berean, ur-zozoa babestuaz, bera bizi den erreka babestea lortuko dugu eta honela, bertan bizi diren gainontzeko izaki bizidunak ere babestea lortuko dugu hein handi batean.

Baina errekekako uren kalitatea ez ezik, erreka inguruko guzuen kalitatea ere garrantzitsua da ur-zozoaren bizirau-penerako. Ur-zozoak ur-saltoen atzealdeko paretetan edo eta erreka bazterreko harkaitz hormetan jarri ohi du habia eta kontuan izan behar da ere, jaten dituen errekekako ornogabeak uraren kalitatearen menpe daudela, eta uraren kalitatea, askotan, inguruaren menpe. Hau dela eta, ur-zozoak ur garbiak dituen eta inguru oso eraldatua ez duten errekek gustuko dituela esan daiteke.

GUSTUKO ERREKAN, KORRONTERIK EZ!

Jose Ignacio Jauregi "Joxi" Aranzadi Zientzia Elkarteko Eratzuntze Bulegoko kidea da. Afizioak bultzatuta sartu zen ornitologia munduan eta astero-astero, hutsik egin gabe, lan orduetatik kanpoko denbora asko hegaztiak eratzuntzen igarotzen du.



Itxuraz, ur-zozoa ez da Kartola errekan gora, errekan behera dabilen bakarra. "Joxi" k hegazti guztiak maite ditu, baina bat bereziki begikoa du: ur-zozoa. Egun, Urumea, Leitzarain eta Oarsoaldeako ur-zozo populazioen jarraipena egiten duen taldearen arduraduna da. Javirekin, Iñakirekin eta Txemarekin osatzen du taldea. Eurena epe luzeko proiektua da, emaitzak ez dira egun batetik bestera iritsiko, baina horrek ez die beldurrik ematen. Ikerketa lan honetan pasioa lanari gailentzen zaio. Gustuko errekan korronterik ez baita...

Zergatik ur-zozoa eta ez beste edozein espezie?

Erreka bateko ur-zozoaren populazioaren egoerak, erreka kontserbazio egoera islatzen du. Ur-zozoa erreka bioindikatzailerik bikaina da. Honela, ur-zozoa aztertuz erreka kalitatea zenbatekoa den ezagutu dezakegu. Dena den, ur-zozoa lagintzera goazenean, bide batez, errekei oso lotuak dauden beste bi espezie ere lagindu eta aztertzen ditugu: buztanikara horia (*Motacilla cinerea*) eta martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).

Noiz hasi zinen Urumea ibaiko ur-zozoaren jarraipena egiten?

Urumeako ur-zozo populazioaren jarraipena egiteari 2009an ekin nion. Jarraipena eratzunketa metodoaren bidez egiten dugu. Hau dela eta, hasi ginenetik, ur-zozoak harrapatu, eratzuna jarri eta hauen jarraipena egiten dugu.

Zertarako egiten duzue jarraipena? Zein da ikerketaren helburua?

Gurea epe luzeko ikerketa da. Hasierako urteetan populazioaren egoera ezagutzeko laginketak egin ditugu. Urtez urte datuak pilatzen goaz eta populazioak hobeto ezagutzeko aukera ematen digu horrek. Orain, hasi ginenetik gaur arte jasotako datuei esker, urtero jasotakoak aurreko urtekoekin alderatu ditzakegu eta horrek populazioari buruzko datu asko ematen dizkigu. Helburu nagusiak hiru dira: populazioaren joera, biziraupena eta populazioaren dinamika aztertzea.

Zertarako eratzuntzen dituzue hegaztiak?

Eratzunketak informazio oso baliagarria ematen digu. Populazio batean dagoen ale kopurua jakin dezakegu, populazio gaztea edo zaharra den, emeak edo arrak ugariagoak diren, populazioaren dentsitatea... espeziearen jarraipen pertsonalizatuarekin, populazioa osatzen duten aleak zein erreka eremutan mugitzen diren sasoi bakoitzean, osasun

egoera zein den, pisuaren aldakortasuna... etab azter daiteke. Eta lehen esan dudan moduan, populazioaren egoera errekaaren egoeraren isla da. Beraz, errekaaren egoerari buruzko informazioa ere ematen digu.



Nola egiten da jarraipen pertsonalizatua? Nola ezagutzen duzue ur-zozo bakoitza?

Laginketan, datuak hartu ostean, aluminiozko eratzun bat jartzen diogu hegaztiari eta beste bat koloretakoa, zein errekatarkoa den adierazten diguna. Ur-zozoaren kasuan bi koloretako kodigo pertsonalizatua erabiltzen dugu. Ur-zozo bakoitzak kolore ezberdineko eratzunak ditu. Honela hurrengo egunetan jarraipena egiterako garaian, prismatikoekin begiratzuz gero, ur-zozo bakoitza identifika dezakegu.



Nolako izaten da laginketa egun bat? Zer da egiten duzuen?

Ur-zozoarentzako egokia izan daitekeen erreka batera joaten gara eta bertan, 400-500 metrora, 1,5-2 bat kilometroko distantzian, erreka alderik alde zeharkatzen duten 3-4 sare jartzen ditugu, txoriak errekan gora eta behera dabiltzala bertan eror daitezten. Ondoren, errekan behealdetik goialdera sareak begiratzen joaten gara. Hegaztiren bat erortzen bada, saretik jaso eta datuak hartzen dizkiogu: zein espezieetakoa den, pisua, gorputzaren egoera, adina, sexua... etab. Jarraian, eraztuna jartzen diogu, lehen esan dudan moduan.



Esan beharra dago ere, prozesuan zehar ur-zozoek ez dutela minik jasaten eta estres pixka bat sortzen badie ere, saiatzen gara arin eta goxo jasotzen datuak, ahalik eta azkarren askatzeko.

Eta emaitzarik ba al duzue dagoeneko edo goizegi da emaitzei buruz hitz egiteko?

Populazioaren joerari buruz hitz egiteko datu nahikorik ez dugun arren, dagoeneko adieraz dezakegu Urumean 60 aletako ur-zozo populazioa dugula eta umatu egiten duela. Jasotzen ditugun datuak, lehen esan dudan moduan, era askotakoak dira, baina emaitzak edukitzeko landu egin behar dira eta gu, oraindik, informazioa jasotzeko prozesuan gaude.

60 aletako populazioa. Asko ala gutxi da?

Asko da noski. Urumean ur-zozo populazioaren egoera ona dela adieraz dezakegu.

Eraztunketaz gain, ari al zarete zerbait gehiago egiten ur-zozoarekin?

Bai, azken urtean Urumeako zubien azpialdean ur-zozoak umatzeko egokiak diren kabi-kutxak jarri ditugu. Dagoeneko esan dezakegu emaitza oso onak ari dizkigutela ematen kabi-kutxa hauek. Oso pozik gaude.



Zubietaz ari garela, entzuna dut arkitekto batzuekin ere elkarlanean aritu zaretela. Zertarako?

Leitzaranean zubi bat berritu behar zutela eta, arkitekto batzuk gurekin jarri ziren kontaktuan. Ur-zozoak zubian habia jartzen zuela jakin zutenean aholkua eskatu zigiten zubi berria diseinatzeko garaian habia jartzeko baldintza egokiak izango zituen zubia egiteko.

Badakit Epele inguruan eta beste auzoetan etxe artean aritu zaretela lagintzen umeak eta bizilagunak inguruan dituzuela. Nola hartzen du jendeak zuen lana zertan ari zareten kontaktzen diezuenean?

Oso ondo! Jendeak oso iritzi ona du egiten ari garen lanaz. Gu ere saiatzen gara hegaztiari kalterik egiten ez dion heinean, jendea inguruan dugunean azalpenak ematen eta hegaztiak erakusten. Oso harrera ona izaten du normalean, batez ere txikienen artean.

Hegaztiak erakargarriak dira txikienezat. Eta gazteentzat? Nola ikusten duzu eraztunketaren etorkizuna?

Jende gaztea animatzen da eraztunketa ikastaroetara, praktiketara eta antzeko ekintzetara. Baina konstantzia falta zaie belaunaldi berrienei. Hasi hasten dira baina jarraipena falta zaie. Dena den, badago jende gaztea ere oso ondo lan egiten duena eta ardura bere gain hartzen duena ere. Horiek dira etorkizuna. Gure datuek eta orokorrean, proiektuak, ez dute ezertarako balioko etorkizuneko ikerlariak jarraipenik ematen ez badiete.



Zubi azpian jarri izan diren habi berrienetako bat.

Arkitekto eta biologoen arteko elkarlanak ez dira berriak eta ingurugirorekiko kontzientzia gero eta zabalduegoa dagoen garai hauetan, ez dira gutxi euren lanen diseinuan bioaniztasuna kontuan eduki duten arkitektoen adibideak.

Bioaniztasuna kontuan eduki nahi duen arkitektoak bere eraikina non kokatua egongo den aztertu behar du. Hau da, eraikinak ingurunean ondo integratua behar du, inguruko fauna eta flora kontuan izanik, ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Edo zergatik ez, batzuetan onurak ekartzeko ere bertako populazioei.

ARKITEKTURA ETA BIOANIZTASUNA


Eraikin berriak eraikitzean edo eta hauen berritze lanetan, biologo eta arkitektoen elkarlana ezinbestekoa da.



ERAIKIN ZAHARRAK, BIZIA BERRITZEKO

Horrela, gure inguruan, harriz eraikitako eraikuntza zaharrak erortzen edo desagertzen joan dira edo kasu batzuetan zementuzko eraikin berriagoengatik izan dira ordezkatuak. Horren adibide izan daitezke harriz eta egurrez eginiko zubiak, kanpandorreak, etxe eta baserrietako teilatuak, zelai edo baratza inguruetak harrizko hormak... aldaketa txiki hauek, ordea, kasu batzuetan eragin handia izan dute espezie jakin batzuen eta ikusi da, esaterako animalia espezie jakin batzuen populazioak jaisten doazela, batzuk arriskuan geratzeraino.

Aurreko mendeetan Urumea ibaia zeharkatzeko egindako Fagollaga, Ugaldetxo edo Etxolaberriko zubiak, esaterako, mesede egin dio bertako ur-zozo populazioari. Bertan aurkitu baititu, inguruan nekez aurkituko dituen habiak jartzeko harkaitz arteko zirrikituak.



ERAIKIN BERRIAK, ERAIKIN HILAK

Eraikuntza berriek ez dute habiak jartzeko zirrikiturik edukitzen askotan. Hau dela eta, intsektuak jaten dituzten enarak eta sorbeltzak gero eta urriagoak dira gure herrietan. Usoak, aldiz, gero eta ugariagoak, izan ere, bere harrapari naturalek, hala nola, hontzek eta belatzek, dagoeneko ez dute habia jartzeko gunerik. Kanpandorreak itxi egin dira, baserriek ez dute ukuilurik, ez dago basorik gure etxe inguruetan... hegazti, saguzar, narrasti populazio asko beheraka doaz pixkanaka.

Urumea ez da salbuespena eta azken urteetan eraiki diren zementuzko edo metalezko zubi handi zein txikien diseinu zurruna eta zirrikitu gabekoa dela eta, ur-zozoak habia jartzeko gune berriak aurkitu behar izan ditu. Eraikin berriak, bizi gabeko eraikin bihurtu direlarik.